

medicusmundi

Bizkaia

60 años para que la salud
sea un derecho para
todas las personas

100 buletineta,
milaka istorio

“En Guatemala la
salud se concibe de
manera integral”

Emakume migrante
kongoarrak
eraldaketarako
eragile



100

diciembre 2025 abendua
BOLETÍN SEMESTRAL

60 años para que la salud sea un derecho para todas las personas

En enero del año 2026 medicumundi Bizkaia cumplimos nuestro 60 aniversario de lucha en defensa de la salud una pública accesible y gratuita para todas las personas.

En **medicumundi** Bizkaia entendemos la salud no sólo como un asunto individual, sino como un bien público y comunitario que requiere por tanto de políticas públicas que garanticen su derecho efectivo, así como la participación comunitaria y de cooperación entre diversos actores sociales para aprender de diferentes modelos y experiencias.

Defendemos una salud pública desde el fortalecimiento de la atención primaria, con especial atención a los determinantes sociales de la salud como la pobreza, el género, la orientación sexual, la raza, etc. y desde una visión intercultural, valorando no sólo el modelo biomédico occidental sino también toda la sabiduría acumulada por las cosmovisiones de otros pueblos.

Desde estos principios llevamos trabajando ya 60 años y, pese a las alianzas y logros cosechados, nuestra labor sigue siendo por desgracia todavía necesaria, tanto en los países del sur como aquí, donde vemos cómo poco a poco se privatiza la salud con consecuencias importantes para las personas y colectivos más vulnerables.

El trabajo que realizamos no sería posible sin los profesionales que trabajan en la asociación, que son quienes ponen el alma y el sudor día a día para desarrollar las políticas de la organización, y tampoco sin el apoyo de todas las personas socias, voluntarias y donantes que son el alma de la asociación y a las que queremos mostrar nuestro más sincero agradecimiento.

Nos queda todavía por delante una labor importante e ilusionante y desde la Junta Directiva os invitamos a todas a participar activamente para que la salud sea un derecho para todas las personas.

60 urte osasuna pertsona guztientzat eskubidea izan dadin

2026ko urtarrilean, medicumundi Bizkaiaren 60. urteurrena ospatuko dugu; 60 urte beteko ditugu pertsona guztientzako eskuragarria eta doakoa den osasunaren alde borrokan.

medicumundi Bizkaian osasuna ondasun publikoa eta komunitarioa dela uste dugu, eta ez soilik norbanakoen kontu bat. Horregatik, osasunerako eskubidea bermatzeko, politika publikoak ezinbestekoak dira, eta baita komunitatearen partehartzea eta askotariko gizarte eragileen arteko lankidetzaren ere; hala, eredu eta esperientzia desberdinetatik ikasten dugu.

Defendatzen dugun osasun publikoaren ereduak hainbat oinarri ditu: lehen mailako arreta sendotzea, osasunaren baldintzatzaile sozialei (hala nola, pobrezia, generoa, sexu-orientazioa, arraza eta abar) arreta berezia jartzea, eta kultura arteko ikuspegia (mendebaldeko eredu biomedikoa ez ezik, beste herri batzuetako kosmobiologiak metatutako jakinduria ere balioetsiz).

Printzipio hauetatik abiatuta, 60 urte daramagu lanean: aliantza sendoak eraiki eta lorpen esanguratsuak bildu arren, zoritxarrez, gure lana oraindik ere beharrezkoa da, bai hegoaldeko herrialdeetan, bai hemen; osasuna pixkanaka pribatizatzen ari direla ikusten dugu, eta ondorio kaltegarriak ditu pertsona eta kolektibo ahulentzat.

Egiten duguna ez litzateke posible izango elkartean lan egiten duten profesionalik gabe, haien arima eta izerdia jartzen baitituzte egunez egun erakundearen politikak garatzeko, ezta bazkide, boluntario eta diru-emaile guztien laguntzarik gabe ere, hauek baitira elkartearen arima, eta gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu.

Oraindik lan garrantzitsua eta kitzikagarria dugu aurretik, eta Zuzendaritza Batzordetik aktiboki parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu guztioi, osasuna pertsona guztientzako eskubidea izan dadin.



El actual logo de **medicumundi** Bizkaia aparece por primera vez en el boletín nº58, de 2003. Y en este boletín nº100 presentamos el logo especial que conmemora el 60 aniversario de **medicumundi** Bizkaia. Diseñado por la ilustradora Amaia Azkarate, destaca un estetoscopio con forma del número 60. Aunque hoy MMB prioriza incidir en los determinantes sociales de la salud, el material sanitario refleja el origen de la organización, creada por médicos y profesionales de la salud.

100 buletinetan, milaka istorio

Proiektuak eta proiektuen txostenak, gutunak eta emailak, urteko memoriak, aldarrikapenak eta hitzaldiak, ikerketak eta liburuak, prentsa albisteak... zenbat hitz ez ote diren idatzi medicusmundi Bizkaian. 60 urte beteko ditu elkarteak 2026ko urtarrilaren 17an, eta hauxe dugu 100. buletina; zenbaki biribil hauek omentzeko, atzera begira jarri gara. Zorionez, urteotan lana maitasunez eta irizpide onekin egin denez, aurreko informazio buletin den-denak ondo gordeta ditugu bulegoan.

100 buletineta milaka istorio kontatu ditugu. Eta aldizkari historikoei errebasoa eginda, 1966tik gaur arte zenbat gauza aldatu diren argi ikus daiteke: pesetetatik euroetara pasa gara, idazmakinetatik smartphoneetara, faxetatik internetera, Concha kaletik Begoñara, Ekuadortik Guatemalara, Zairetik Kongoko Errepublika Demokratikora, erregimen frankistatik hauteskundeetara eta Autonomia Estatutura, Mercatorren proiektiotik Petersen mapara, Vizcayatik Bizkaia izatera...

Bizkaia izendapena 1992an heldu zen buletineta (“Osasunketarako kooperazio nazioarteko erakundea”), eta editorialak 1994tik argitaratzen dira ele bitan. Euskarak ere bere bidea egin du elkarreko argitalpenetan eta bizian, baina elkarrearen izendapena ez zen soilik hizkuntza kontua izan: 1992 arteko buletineta “Medicus Mundi Internacional. Delegación Vizcaya” zena, “Medicus Mundi Bizkaia / Vizcaya” izatera pasa zen. Izan ere, Medicus Mundi Bizkaia elkarteak 1989ko azaroaren 22an eratu zen eta abenduaren 15ean erregistratu; eta 1993an aitortu zuten onura publikoko elkarte gisa. Nazioarteko egitasmoa 1962an hasi zen Alemanian, 1963an heldu zen Bartzelonara, eta 1966an ekarri zuten Bizkaira. Ordukoa da lehen buletina.

Egindako bidea ez da makala, eta aurrerapenak aurrerapen, desberdintasunak eta osasun beharrak handiak dira oraindik; eta horiei aurre egiteko, nazioarteko elkartasuna ez da behar hainkoa, baina ez dugu esperantza galtzen.

2. Buletinoko editorialean ere antzera zebiltzan, izenburua: “¿Éxito o fracaso?” (Arrakasta ala porrota?). Alde batetik, zera zioten “el número de adheridos a Medicus Mundi en Vizcaya es menor del que esperábamos y asimismo el ritmo de inscripciones ha resultado más lento de lo previsto”; baina, bestetik “si pasamos a considerar ahora lo que se lleva hecho, en verdad nos podemos sentir optimistas”. Alegia, Medicus Mundiri atxikitako pertsona kopurua espero genuena baino txikiagoa da, baina orain arte egindakoa aztertuz gero, benetan baikor senti gaitzke.

Bide honetan ez gaude bakarrik. Hasieratik beste elkarteekin lankidetzan aritu gara elkarlanean: Misiokekin, beste euskal GKEekin, plataforma eta koordinakundeetan, Ruanda edo Guatemalako larrialdietarako batzorde berezietan, osasun arloko erakundeekin, instituzio publikoekin, tokiko elkarteekin, finantza erakundeekin... eta gainerako medicusmundi elkarteekin, noski. Horren adibide, eta Ruandako krisiak eragindako kolaborazio izpirituz, 1994 eta 2001 bitartean, Euskadiko Medicus Mundi elkarteek 14 buletin argitaratu genituen elkarrekin.

Gerora ere elkarlanean jarraitu dugu. 57. buletineta “La salud en la cooperación al desarrollo española” lehen txostenaren berri eman

genuen: Prosalus, Mugarik Gabeko Medikuek, Munduko Medikuek eta medicusmundi elkarrekin egina. 2002ko txosten horren helburua eta diagnosia, honakoa: “pretendemos contribuir en alguna medida al objetivo de alcanzar la meta que desgraciadamente aún está muy lejos de cumplirse de “salud para todos y todas””. 2025eko txotena argitaratu berri dugu, helburu berberarekin: ahal den heinean, guztiontzako osasuna lortzen lagundu nahi dugu; zorritzarrez, hori lortzetik oso urrun baikaude oraindik. Garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioko egungo murrizketek egoera are gehiago okertzen dute.

Horregatik, ekinean jarraituko dugu. Eta buletineta munduko osasun egoeraren eta gure lanaren berri ematen.



Lehen buletinaren goiko aldea; zirkularrak bi orrialde zituen.

Ofertas de trabajo en Tercer Mundo

Argelia : Toda clase de personal sanitario. Médicos, Enfermeras, Comadronas, Puericultoras. Otro personal paramédico (laborantinas). Lengua francesa obligatoria. Contrato mínimo dos años. Honorarios: 2.800-3.000 D.A. (médicos) 725- 788 D.A. (enfermeras) 894 D.A. (comadronas) 1 D.A.: 1 franco francés.

Túnez : Ofertas similares.

Ghana, Malawi, Uganda, Tanzania, (necesario el conocimiento de inglés).

Nigeria : Solicitan urgentemente plazas de médicos para Nigeria.

Congo : Plazas médicas. Aumento de honorarios a 30.000 Fr. belgas.

Sud-Africa: Varias plazas para distintos hospitales.

India : Médicos, especialmente mujeres.

Los contratos se realizan a través de la Secretaría Internacional.

Jan eskaintzak 6. Buletineta (1969ko apirila).



2006ko bazkideen batzarra, 40. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia; 63. buletineta.



Fotografía de Dunia Orellana y Dennis Arita]

IOTA eta ETA urakanek Erdialdeko Amerikan eragindako larrialdia. 92. buletina, 2020ko negua.

De Los Ríos a Guatemala, de Brito Godins a RDC, de Vizcaya a Bizkaia, de dispensarios a determinantes sociales: siempre por un mundo sano

medicusmundi celebró su acto fundacional en Bilbao el 17 de enero de 1966 y hemos llegado a su 60 aniversario con el boletín informativo número 100. Son números redondos que nos hacen mirar atrás.

La organización de Bizkaia quiso desde sus inicios. Tanto que la 1ª circular informativa de **medicusmundi** Bizkaia, entonces **Medicus Mundi Internacional – Agrupación de Vizcaya** se publicó en enero de 1966. Se contaba cómo había sido el acto inaugural (la charla ofrecida por los doctores Manresa y Cortadellas, la proyección de un documental, la cena), aparecían los nombres de los primeros socios, los estatutos y las cuotas de **medicusmundi** Bizkaia, información sobre la recogida de medicinas y relativa a farmacéuticos... Así mismo, se podía leer que, por la relación entre **Medicus Mundi Internacional** y la OMS existía la posibilidad de firmar contratos de trabajo remunerados para trabajar en hospitales y establecimientos sanitarios en funcionamiento en 15 países o territorios de África y Asia, entre los que estaban Leopodville y Zuzulandia.

Contaba la crónica que en la cena del acto fundacional también estuvo el Obispo de Los Ríos (provincia de Ecuador, de gran tradición para Misiones Diocesanas Vascas), Monseñor Garaygordobil. En próximos boletines se puede leer que precisamente en Vines, núcleo urbano de la Misión de Los Ríos, “Los médicos de Vizcaya patrocinan un Dispensario”. Fue el primer proyecto de **medicusmundi** Bizkaia, en 1966. También elaboraron un programa para eliminar la mortalidad infantil por la enfermedad de los “siete días”.

Además, becaron a Mirian Mazuera y a Mercedes Cabezas para que estudiaran en Bilbao. Estas mujeres ecuatorianas se adiestraron como enfermeras y asistentes sociales en diversos sanatorios y clínicas bilbaínas para ejercer luego en su país. También se becó a una auxiliar indígena del dispensario de **Brito Godins** (Angola) para que obtuviera el título oficial de Practicante-Partera en Luanda. Entre los primeros 100 socios de **Medicus Mundi** en Bizkaia había **3 mujeres**, pero se podía ver que la participación de las mujeres sería importante en la asociación. Además de las enfermeras becadas, la encargada de la recogida de medicamentos era la secretaria Srta. Begoña. También se contaba que la Licenciada Rosa Piquer se había trasladado a Camerún. Asimismo, en 1968 las enfermeras M^a Teresa Iriarte y Aránzazu Esnal fueron a Vines: “están poseídas por el mejor espíritu”. Ese mismo año **medicusmundi** Bizkaia se volcó en Ruanda, con el dispensario de Gihara, a donde en 1969 fue la enfermera María Teresa Ordoyo: “el primer mensajero que M.M. Vizcaya desplaza al Tercer Mudo”. Allí colaboró con dos enfermeras que ya residían en el centro sanitario: la bilbaína Laura Polo y la oriotarra María Jesús Campos Illarramendi. Más tarde llegarían Rosa María Zubiarrain y M^a Carmen G. Holgado, y muchas más. En 1970, de los 235 profesionales que componían **medicusmundi**, 49 eran enfermeras.

Según contaba Ordoyo, desde su época de estudiante siempre había pensado “dedicar algún año de mi trabajo en favor de los más necesitados” y la visita a la Exposición sobre Tercer Mundo de Navidades le convenció a trabajar con **Medicus Mundi**. Las **exposiciones** y actividades culturales o educativas han acompañado desde el principio junto a la cooperación internacional, para recaudar fondos y para generar conciencia. Desde la Zarzuela “El Caserio” en el teatro Campos Eliseos “a beneficio del Hospital de **Medicus Mundi** en Ruanda” en 1970, a la recaudación en la carrera “Desde Santurce a Bilbao” de 2017 para proyectos en derechos sexuales y reproductivos en RDC, o a la Lilakrosa de Durango en 2019 para proyectos en Guatemala. En los últimos años también se han realizado varios



Noticia en la circular informativa nº 3, noviembre 1966.



La Srta. Merche Cabezas estuvo en Bilbao adiestrándose como enfermera y como asistente social. De vuelta a Vines trabaja en el Dispensario. En la fotografía la vemos junto al Dr. Aguilar clasificando las medicinas de una reciente remesa. Dada la habitual penuria de la población, los enfermos quedarían sin efectuar el tratamiento de no recibir gratuitamente la medicación que les ordenó el médico.

Fotografía en el boletín nº 5, diciembre 1968.

filmes documentales, como “La sanidad en shock”, “Artoaren oihartzuna (Entre el maíz)”, “Yo, tú, nosotros” o “Diverses”. Antes, los grupos de trabajo de artesanía y difusión organizaron durante años exposiciones “pro-Tercer Mundo” y mercadillos de artesanías traídas de los países donde se cooperaba. A finales de los 1990 también se creó “Munditienda”: venta de camisetas, pines y chándales de **medicumundi** con ilustraciones de Oroz. ¡Aún nos queda alguna camiseta en la oficina!



Ilustración de Oroz en un artículo sobre la exposición “En busca del sur”; 7.000 personas visitaron la muestra en Bilbao. Boletín nº 43, de 1996.

Ruanda es el país donde **medicumundi** Bizkaia más tiempo ha trabajado y donde aún sigue presente. Un país que sufrió un genocidio en 1994. En la circular de junio de 1994 se lee: “La orden de evacuación de todos los blancos de Ruanda, unida al desamparo en que ha quedado el país, abandonado a su suerte por la comunidad internacional, hacen en estos momentos impensable la realización de cualquier tipo de ayuda dentro del mismo”. Se realizaron contactos en Tanzania, Burundi y Zaire para conocer la situación de los refugiados y poner en marcha planes de emergencia. En la revista semestral de enero de 1995 se leía: “El país se encontraba destrozado y había 4 millones de personas en su interior sin asistencia médica. A finales del mes de octubre se preparó un equipo desde Medicus mundi Vizcaya para retomar el proyecto Rukoma y el hospital de Nemba. Al mismo tiempo se iniciaron las gestiones para realizar un flete aéreo de 33 toneladas de material en colaboración con Misiones Diocesanas Vascas y la asociación Behar Bidasoa”. En esa misión fueron nueve personas de medicus, incluyendo cuatro de Bizkaia. Además, se constituyó la Unidad Operativa para Proyectos Refugiados y Rehabilitación (UOPRR).

El trabajo en red, con otras entidades, uniendo fuerzas, siempre ha sido importante y, precisamente, en ese año Nieves Zabala, de **medicumundi** Bizkaia, fue electa presidenta de la Coordinadora de ONGs del País Vasco. Abrió el boletín 42 diciendo “Gero eta Gehiago gara. Cada vez somos más los que apostamos por la solidaridad”.

Vietnam, Cuba, Brasil, Bolivia, Uganda, Tanzania, Guinea Bissau, Filipinas, El Salvador, Chiapas, Mozambique, Mali, Chad... en estos 100 boletines se encuentran decenas de países, temáticas y proyectos, cientos de datos, miles de vidas. Minas antipersona-



De izquierda a derecha, de pie: Rosa Zubiarraín, Mari Asun Ortiz de Urbina, Xabi Pérez, Natalia Herce. De izquierda a derecha, agachados: Montse Fernández, Xenia Gómez-Olivé, Xavi Gómez-Olivé.

Cooperantes en el proyecto de Rukoma (Ruanda). Boletín Nº 44, diciembre 1996, 30 aniversario de MMB. Natalia Herce, que continúa trabajando en medicusmundi, nos cuenta que el grupo sigue en contacto.

les, vacunas, consejos para viajar al trópico, obras del local, programa África imprescindible, plataforma Pobreza Cero, Juventud Vasca Cooperante, Código de Conducta, comercio justo, deuda externa, Congreso Stop Malaria Now, concurso Jóvenes en busca del Sur, proyecto “Agua y salud” en los centros escolares, voluntariado, narco-estados, las ONGD y la crisis, exposición “Su salud nuestra dignidad”, Sida en África, “Yana Curi, Oro negro”, Medicamentos y Cooperación, campaña “Gerrarik ez! ¡No a la guerra!”, banca ética, Foro Vasco por la Salud, patologización de la diversidad sexual y de género, huracán Mitch, huracán Stan...

Durante este 60 aniversario seguiremos recordando y honrando el camino recorrido, y escribiendo nuevas páginas del activismo de **medicumundi** Bizkaia AktiBatu, implícate. ¡Enrédate por la salud! – Sare egin osasunaren alde! Por un mundo más sano.



Boletín nº 72 (2010), el primero a todo color. Dentro de la campaña “Stop Malaria Now!”, la obra de teatro “El juego de la Acacia” se representó en 6 municipios de Bizkaia.

En la imagen Aysa, una de las actrices de la obra.



“En Guatemala se entiende que la salud está profundamente condicionada por el contexto”

Leire Sánchez Fernández, graduada en Relaciones Internacionales, ha estado en Guatemala de junio a septiembre, realizando las prácticas del máster en Desarrollo y Cooperación Internacional del Instituto HEGOA y EHU, de la mano de **medicums**mundi Bizkaia. Ha formado parte del equipo técnico de ASECSA (Asociación de Servicios Comunitarios de Salud), impulsando la participación de mujeres mayas en los Observatorios Ciudadanos (OC) de los departamentos de Chimaltenango y Sololá, que trabajan a favor del derecho al agua y a un medio ambiente sano.

Entrevistamos a Leire y a una de sus compañeras de ASECSA, Ivana Gómez Arenales, graduada en Trabajo Social, sobre salud, actores sociales y medioambiente en Guatemala.

¿Cómo se entiende la salud en Guatemala?

LEIRE: Una de las cuestiones que más me llamó la atención en mi periodo de prácticas fue que la salud se concibe de manera integral, a diferencia de cómo se presenta en occidente, centrado únicamente en la enfermedad y su tratamiento médico. En Guatemala, la salud se entiende desde sus causas estructurales, reconociendo así que el bienestar de las personas y las comunidades está profundamente condicionado por el contexto. Así, en el proyecto de los OC, se detectó un problema gastrointestinal vinculado a la mala gestión de residuos y al aumento de basureros clandestinos, con impacto en las cosechas, el acceso al agua potable y el rendimiento escolar infantil.

IVANA: Guatemala enfrenta múltiples desafíos estructurales en materia de salud, entendida desde una mirada integral. Factores como el racismo, la desigualdad,

los estigmas sociales y la corrupción limitan el acceso universal y equitativo a servicios de calidad. En este contexto, ASECSA ha impulsado acciones que fortalecen un enfoque intercultural y comunitario de la salud; un ejemplo clave es la valorización del trabajo de las abuelas comadronas, reconociendo su aporte ancestral y su papel en los procesos de salud de las comunidades. De igual manera, los OC han permitido visibilizar esta problemática a nivel local, generando análisis y reflexiones desde las propias comadronas.

¿Qué papel tienen las comadronas y los guías espirituales en la incidencia política?

IVANA: En el marco de los OC, la mayoría de los integrantes son comadronas y guías espirituales, los cuales desempeñan un rol fundamental en los procesos de incidencia política, esto porque desde su conocimiento ancestral y su vínculo profundo con los territorios, aportan una comprensión integral de las problemáticas comunitarias. Además, su autoridad moral y su capacidad de orientar a la comunidad fortalecen los procesos organizativos y de liderazgo, permitiendo que las demandas colectivas se creen desde una perspectiva culturalmente pertinente y con legitimidad social.

LEIRE: Sí, exacto. Las comadronas y guías espirituales ocupan un lugar central en la vida comunitaria, y desempeñan un papel clave en la incidencia política desde su autoridad social, cultural y moral. Concretamente, representan la figura mediadora entre la comunidad y las instituciones, legitimando así las demandas colectivas y defendiendo los saberes ancestrales. Estas prácticas de cuidado, espiritualidad y acompañamiento comunitario impulsan la movilización social y contribuyen a que las políticas públicas se ajusten a realidades, valores y necesidades locales.

¿Qué presencia tienen los movimientos sociales frente a los problemas medioambientales?

LEIRE: En Guatemala, se percibe una participación activa y estratégica frente a los problemas ambientales, evidenciando así que la degradación del medio ambiente está estrechamente ligada tanto a la distribución y acceso desigual de los recursos como a las decisiones políticas que impactan directamente en los territorios.

IVANA: Además, desde diversas plataformas, se impulsan acciones como campañas de reforestación y procesos de sensibilización que articulan el enfoque ambiental con la defensa de los derechos colectivos. Bajo el principio “la ecología sin lucha social es solo jardinería”, integran la cosmovisión de los pueblos originarios para promover una gestión territorial basada en el respeto, la participación comunitaria y la protección de las fuentes de vida.



Leire, segunda por la izquierda, e Ivana, en el medio, en el lago Atitlán junto a compañeras de ASECSA.

Emakume migrante kongoarrak eraldaketarako eragile

Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Egunean, Manimani Iragik, Bukavuko (Kongoko ED) Medikuntza ikasleak, zera esan zion gure bazkide SPRri: “praktikan, giza eskubideak ez dira errespetatzen: bizitza pribaturako eskubidea (neska gazteen argazkiak partekatzen dira sare sozialetan, haien baimenik gabe), hezkuntzarako eskubidea (herritarren % 55ek ez du hezkuntza jasotzeko aukerarik izan, batez ere landa eremuan), bidezko lanerako eskubidea (gaizki ordaindutako lanak), adierazpen askatasunerako eskubidea (emakume batzuei ez zaie uzten batzarretan hitz egiten)... lan asko dago egiteko”. “Eskubideak ez ezagutzeak eta eskubideei jaramonik ez egiteak eskubide horiek ez errespetatzea dakar ezinbestean; hezkuntza eta sentsibilizazioa behar dira”, aldarrikatu du.

Abenduaren 10ean amaitu zen, halaber, hainbat erakunde feministak urtero egiten duten 16 eguneko aktibismo kanpaina; azaroaren 25ean hasi zen, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean. SPRk bezala, FAMEK elkarteak (Asociación de Cooperación al Desarrollo de Mujeres Kongovascas) ere 16 eguneko aktibismoa egin zuen isildutako indarkeriak ikusarazteko, “Isiltasuna hausten duten argiak” lelopean eta “Indarkeria barik bizitzea benetako eskubidea izan behar da, ez pribilegioa” esloga-narekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak lagundutako medicusmundi Bizkaia-aren “Ni bruja ni meras víctimas: promoción y protección del liderazgo de las mujeres de la Llanura de Ruzizi (RDC) en la lucha contra las Violencias Basadas en Género” proiektuaren baitan, FAMEKek eta SPRk elkarlanean “Ruzizi eta Bizkaiko emakume kongoarren erresilientzia eta lidergoa. Iruditeria kolektibo birbiktimizatzailea deseginez eta genero indarkeriaren kontrako borrokaren estrategiak ezagutaraziz” ikerketa ondu dute.

Azterlana Marie Lucia Monshenekek gidatu du; 14 urte baino gehiago darama Bilbon eta FAMEK elkarteko presidente ere bada. Ama medikua du, eta bera ere medikuntza ikasten hasi zen Kongoko EDn; EHU-entzule gisa ere ibili zen eta egun adineko pertsonen zaintzailea da; gainera, ikasten jarraitzen du, hainbat GKEtan boluntario aritu da eta berdintasun eta migrazio arloan komunitate-eragile gisa egindako lanagatik Bilbotar emakume migratzaileei eskainitako saria eman zion Bilboko Udalak.

Ikerketan, 27 emakume kongoar elkarrizketatu dituzte, Bizkaian bizi diren 15 eta Ruziziko beste 12. “Kongo ekialdea izugarriko

aberastasun naturaleko eta aniztasun kultureko eskualdea da”. Horregatik, eta testigantzen irudikapen fidela bermatzeko, swahili, lingala, frantsesa eta gaztelararen arteko interpretazio eta bitartekotza behar izan dira. Elkarrizketez eta inkestez gain, elkarrengandik ikasteko eta elkar aberasteko topaketa bertualak egin zituzten emakumeek.

Mintzagai izan zituzten sexu indarkeria, behartutako desplazamendua, erasotzaileen zigorgabetasuna, gatazka armatuengatik trauma, familia desegituraketa, osasun sare komunitarioak, hezkuntza informala, salaketa komunitarioa, laguntza psikologikoa, komunitate babeseko sareak, sexu eta ugalketa osasuna, neska eta emakume kalteberenen babesa, lider berriak, eta askoz gehiago. Eta Kongoko emakumeen inguruko imaginario positibo bat sortzea.

Izan ere, nagusi diren narratibek emakume afrikarrak ahotsik gabeko biktima gisa aurkezten dituzte, eskubideetarako, aitortzarako eta baliabideetarako dituzten aukerak zailduz. Irudi murriztutako gaitur eta beren duintasuna, sormena eta indarra erakustea premiazkoa da. Emakumeak lider, bake sortzaile, hezitzaile, ekintzaile eta komunitate ehunaren zaintzaile gisara ere irudikatzea.

“Ruzizin, gatazka armatuaren esparruan bizirik irten diren emakumeek krimen horiek nazioko eta nazioarteko erakundeen aurrean salatzeke antolatzea lortu dute, estigmak ezarritako isiltasuna hautsiz”. “Bizkaian, kongoar emakume migratuek ahalduz eta salaketa espazioak sortu dituzte”. “Taldeko inkestetan, bizitako indarkeriei eta migrazioari aurre egiteko elementu baliotsuena emakumeen arteko elkartasuna dela errepikatu zuten emakumeek.” Erresilientzia adibideetako batzuk besterik ez dira hauek; emakume kongoarrak ere eraldaketarako eragile direla erakusten dutenak.



La investigación está disponible en la web. Ikerketa webgunean eskuragarri dago.



Kamanyolako emakumeak ikerketa prozesuko une batean.



FAMEK elkarteko emakumeak, Bizkaia eta Ruzizi arteko bideodei batean.

Itziar Irazabal, medicusmundiren presidente berria

El 15 de noviembre se celebró en Zaragoza la asamblea de la Federación de Asociaciones Medicus Mundi en España (FAMME), donde se renovó el Consejo Ejecutivo e Itziar Irazabal fue elegida nueva presidenta, dando relevo a Cruz Cuevas. Itziar asume el cargo para los próximos dos años, con compromiso y para seguir luchando por la salud pública, universal y gratuita en todo el planeta, reivindicando que la salud es un derecho humano. Itziar fue presidenta de medicusmundi Bizkaia y es parte de la actual Junta Directiva.



Hablamos de Guatemala en el Congreso de Esku Hutsik

Azaroaren 4an eta 5ean, Emakunderen laguntzaz, amatasunaren, indarkeria obstétrikoaren, dolu perinatalaren eta osasun mentalaren inguruko IV. Kongresua antolatu zuen Esku Hutsik elkarteak (Asociación de duelo perinatal, gestacional y neonatal

en Euskadi y Navarra) Portugaleten. medicusmundi Bizkaia bertan izan zen, eta Ricardo Fernandez koordinatzaileak “La Violencia Obstétrica un problema de la Salud Pública. El caso de Guatemala” hitzaldia eskaini zuen.



Proposamen kolektiboak eta ziurgabetasuna Hondurasen

En los últimos meses medicusmundi Bizkaia ha dinamizado paneles como “Protección Social, Cuidados y Salud Intercultural”, coorganizado el “Diplomado Universitario en Metodologías de Investigación/Acción para el Abordaje de la Violencia Simbólica, Género y Diversidad Sexual”, elaborado la Política Pública para Pueblos Originarios y Afrohondureños, o asesorado la Política de Salud Mental 2024–2030 con



enfoque de género y diversidad, junto a varias asociaciones y Secretarías del Estado de Honduras.

El 30 de noviembre de 2025 se celebraron las elecciones presidenciales para el período 2026-2030 y, varias semanas después, todo apunta al cambio, pero siguen la incertidumbre y el recuento de votos.

Bilbao celebra 30 años de cooperación

Azaroaren 13an, Azkuna Zentroko auditoriumean Bilboko Udaleko Lankidetzaren 30. urteurrenoko gala ospatu zen. Bertan izan ginen MMBko hainbat bazkide, boluntario eta langile. “Mirenen Bidaia” antzezlanak ikusi ahal izan genuen (galarako bereziki sortutako pieza bat) eta Bilbo eta mundu bidezkoago bat eraikitzen diharduten beste hainbat eragilerekin elkartu ginen. Aurrez, urrian, “Euskal lankidetzaren estrategiak indarkeriaren aurrean. Honduras, Senegal, Guatemala eta Palestinako ahotsak” solasaldian parte hartu genuen.



Diru-sarrera handiko herrialdeen osasun-arekontua, herri pobretuenena baino 70 aldiz handiagoa



Como cada año, el 12 de diciembre, Día Internacional de la Cobertura Sanitaria Universal, medicusmundi y Médicos del Mundo presentaron el Informe “La salud en la cooperación al desarrollo y la acción humanitaria”. El informe alerta de que, por culpa de los actuales recortes en cooperación al desarrollo y acción humanitaria, 14 millones de personas podrían morir por causas evitables hasta 2030. Y es que, el 31% del gasto sanitario público de los países de bajos ingresos procedía de la cooperación internacional en 2022.

Arranca la tercera edición del concurso “Durangotik Hegoaldera”



Durangarrek taldeka parte hartu behar dute, eta emakumeen eta osasunaren alde herrian garatzeko egitasmoak proposatu behar dituzte. Abenduaren 11n aurkezpena egin genuen Zugaza zinemetan, “Semillas de Kivu” eta “Naxatik (memoria)” filmekin. Abenduaren 17 eta 18an bi solasaldi egin genituen Andragunean: Nahia Alkortarekin indarkeria gineko-obstétrikoari buruz, eta Izaskun Zarrandikoetxearekin osasun menstrualari buruz. Martxoaren 12an bertso saioa egingo dugu Durangoko Arte eta Historia Museoa.



100

diciembre 2025 abendua
BOLETÍN SEMESTRAL

medicusmundi
bizkaia

ERREDAKZIOA / REDACCIÓN

Miguel Casado Souto
Leire Sánchez Fernández
Jon Mikel Benito del Valle Solaun

ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS

ASECSA
FAMEK
SPR
Esku Hutsik
SEDESOL
Bilboko Udala
UDIMUF

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
MAQUETACIÓN E IMPRESIÓN
ABZ Impresión Digital

ARGITALPENA / EDITA

medicusmundi Bizkaia



Begoñako Andramari 20 behea

48006 BILBO

Tel. 94 412 73 98

E-mail: bizkaia@medicusmundi.es

www.medicusmundibizkaia.org

DEPÓSITO LEGAL: BI-631-90



100